

Eskuratu zure komunitaterako **telekomunikazio guztiak**

FATXADETAN KABLERIK JARRI GABE!



¡Ez Kable Gehiagorik Fatxadan!

Ezagutu eraikinean Telekomunikazio Azpiegitura Komuna (ICT) ezartzeko prozedura osoa, bizilagun guztiei telekomunikazio-zerbitzu modernoetarako sarbidea bermatzeko.



Komunitatean telekomunikazioak instalatzeko gida

Agiri honetan, bizitegi-eraikinetan, fatxadetan kablerik jarri gabe, Telekomunikazio Azpiegitura Komuna (ICT) ezartzeko prozesu osoa zehazten da.

Funtsezko urratsak azaltzen dira, komunitatea enpresa instalatzaile batekin harremanetan jartzen denetik, amaierako ziurtapena lortu arte, etxebizitza eta lokal guztiek telekomunikazio-zerbitzu modernoetarako sarbide egokia dutela bermatzeko.



ICT ezartzeko prozesua: Hasierako faseak

Hasierako harremana

Telekomunikazio Enpresa Instalatzaile batekin –F motan gaitua– harremanetan jartzea, eraikinaren egungo egoeraren azterketa teknikoa egin dezan, badauden telekomunikazioen egoera ebaluatzen.

Balorazioa eta Aurrekontua

Azterketa teknikoa egin ondoren, enpresak ICT (Telekomunikazio Azpiegitura Komuna) sortzeko aukerarik onena proposatuko du, Telebista- eta Irrati-zerbitzuak eta Banda Zabal Ultralastererako sarbidea integratzen dituzten konponbideak (A, B ala C motak) aukera daitezzen.

Proiektu teknikoa

Konponbideak ICT PROIEKTU bat behar du, Telekomunikazio-ingeniari elkargokide batek eginga, ondoren, legeztatzeko, langileek banaketa-kaxatik Operadoreek Interkonektio-gunera (PIO, gaztelaniazko sigletan) eta gero Erabiltzailearen Sarbide-gunera (PAU, gaztelaniazko sigletan) konekta dezaten.

Lehen fase horiek funtsekoak dira azpiegitura egoki baten oinarriak finkatzeko: indarreko araudiarekin bat datorrena eta eraikineko biztanle guztien beharrak betetzen dituen.

ICT ezartzeko prozesua:

Azken faseak



Onartu eta Baliozkotzea

Erkidegoak proposamen tekniko-ekonomikoa onartu beharko du. Ondoren, Telekomunikazio Proiektua egingo da, Elkargoari jakinaraziko zaio eta operadoreei kontsultatuko zaie, baliozkotu dezaten.



Instalazioa eta Obrazuzendaritza

Behin onartuta, ICT konponbidea ezartzen hasiko da, eta, horretarako, espazio komunean, etxebizitzetan eta lokaletan esku hartuko da. Telekomunikazio-material zaharkituak kenduko dira eta ingurumenari kalterik ez egiteko moduan kudeatuko dira.



Ziurtapena

Instalazioa goitik behera egiaztatuko da, baita ondo dabilen ere, eta obra-bukaeraren ziurtagiria, buletina eta proben protokoloa egingo dira. SETELECOri jakinaraziko zaio, eta baliozkotu ondoren, eraikinak ICT zenbakia jasoko du eta ofizialki erregistratuko da.



Azken informazioa

ICT zenbakidun identifikazio-kartela jarriko da eraikinean. Erkidegoari jakinaraziko zaio enpresa mantentzaileari etorkizunean egingo den edozein esku-hartzeren berri eman beharko zaiola, eta operadoreek PIO eta PAU guneetan bakarrik jardun beharko dutela.



Ingurumen-kudeaketa FENITELekin eta Recycliarekin



Telekomunikazioen Enpresa Instalatzaile eta Integratzaileen Estatuko Federazioak (FENITEL) – Euskadin ABITEL, ADITEGI eta AVEITEL barne hartzen dituen – lankidetzaren hitzarmen garrantzitsu bat sinatu du Recycliarekin, hondakin elektronikoen kudeaketa arduratsua egiteko.

Itun estrategiko horrek enpresa elkartu guztien eskura jartzen du horri atxikitze aukera, Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinen (TEEH) Tratamenduari buruzko 2012/19/EB Europako Zuzentarauak ezarritako legeko baldintzak betez.



Ingurumenaz arduratuta

Eraikinetako azpiegiturak eguneratzean kendutako telekomunikazio-material eta ekipok behar bezala kudeatzen dira.

Araudia betetzea

Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen (TEEH) tratamenduari buruzko 2012/19/EB Europako Zuzentarauari atxikitzen zaio.

Lankidetzaren sektoriala

Elkarte profesionalen eta ingurumen-erakundearen arteko lankidetzaren sektorean jardunbide jasagarriak sustatzeko.